

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

#### **Behin betiko onestea Gasteizko Udalaren eta Gasteizko HAPOko 54. sektoreko – Arangiz industrialia – lurzatiei jabe bakarraren arteko hitzarmena**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 24an egindako ohiko bilkuran:

1. Behin betiko onestea Gasteizko Udalaren eta REMELEC SLen ordezkartzaren arteko hitzarmena, zein Arangiz industrialia 54. sektorearen urbanizazioa hitzarmen sistemaren bidez gauzatzeko baita; hori guztia hitzarmen-agirian jasotako klausulekin bat ( 2019ko azaroaren 27ko ALHAOn, 137. zk, argitaratua).

2. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena eta horren dokumentazio osagarria izapidetu eta izenpetzeko.

3. Udalari hitzarmenaren laugarren xedapenean adierazitako abala (urbanizazio-kargen zenbatekoaren ehuneko 7a) eta hitzarmenaren xedapen gehigarrian adierazten den fidantza ordaindu ondoren, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak hitzarmena izenpetzeko eguna eta ordua jarriko ditu, eta behar besteko denboraz eman beharko zaio horren berri interesdunari. Sinatzaileek duten ordezkaritza egiaztatu beharko dute.

4. Erabakia ALHAOn argitaratzea. Erabaki honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 29an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**